

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2024ko urtarrila

Sarrerak % 3,0 eta gaualdiak % 3,4 gehitu ziren Euskal AEko hotel-establezimenduetan 2024ko urtarrilean

Atzeritar jatorriko sarrerak %10,5 hazi dira, eta haien gaualdiak %15,2

2024ko urtarrilean, Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak %3,0 hazi dira, eta gaualdiak %3,4, urte arteko baliotan, Eustaten datuen arabera. 197.170 sarrera erregistratu dira eta guztira 365.844 gaualdi izan dira.

Sarreraren %33,5 eta gaualdien %36,0 atzeritar jatorrikoak izan dira, atzerriko jatorriko sarreraren kasuan %10,5eko igoera eta gaualdien kasuan %15,2koa izan ondoren.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gaualdiak eta batez besteko egonaldia. Urtarrila 2024

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia	
	2024/01	m/m-12 (%)	2024/01	m/m-12 (%)	2024/01	2023/01
EUSKAL AE	197.170	3,0	365.844	3,4	1,86	1,85
Estatukoak	131.036	-0,4	234.218	-2,3	1,79	1,82
Atzeritarrak	66.134	10,5	131.626	15,2	1,99	1,91
Araba/Álava	29.671	5,5	61.348	8,1	2,07	2,02
Estatukoak	22.968	2,1	44.268	-0,3	1,93	1,97
Atzeritarrak	6.703	18,9	17.080	38,5	2,55	2,19
Vitoria-Gasteiz	25.574	5,8	54.896	10,4	2,15	2,06
Bizkaia	85.589	-3,3	155.193	-4,6	1,81	1,84
Estatukoak	59.409	-6,2	101.743	-9,5	1,71	1,77
Atzeritarrak	26.180	4,0	53.450	6,3	2,04	2,00
Bilbao	62.595	-3,6	114.409	-4,0	1,83	1,83
Gipuzkoa	81.910	9,5	149.303	11,0	1,82	1,80
Estatukoak	48.659	6,4	88.207	6,4	1,81	1,81
Atzeritarrak	33.251	14,5	61.096	18,3	1,84	1,78
Donostia / San Sebastian	58.347	12,1	104.710	14,4	1,79	1,76

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Otsailaren 21a

Iturria: Eustat, Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Araban 29.671 sarrera eta 61.348 gaualdi erregistratu dira, aurreko urteko urtarrilean baino %5,5 eta %8,1 gehiago. Gipuzkoan 81.910 sarrera erregistratu dira 2024ko urtarrilean, 2023ko urtarrilean baino %9,5 gehiago, eta, ondorioz, 149.303 gaualdi izan dira, aurreko urteko hil berean baino %11,0 gehiago. Bizkaian, aldiz, sarrerak %3,3 jaitsi dira eta gaualdiak %4,6, 85.589 sarrerekin eta 155.193 gaudirekin, 2023ko urtarrilaren ostean, non sarrerak eta gaualdiak %60tik gora hazi ziren.

Hiriburuka, sarreraren kopuruak %5,8 egin du gora Gasteizen eta %12,1 Donostian; Bilbon, berriz, %3,6 egin du behera. Ostatu-gauen kopuruak, aurreko urteko urtarrilaren aldean, %10,4 egin du gora Gasteizen eta % 14,4 Donostian. Bilbon, berriz, % 4,0 jaitsi da

Euskal AEko hotel-establezimenduetako batez besteko egonaldia 1,86 egunekoa izan da 2024ko urtarrilean, aurreko urteko hil berean baino zertxobait handiagoa (1,85 egun). Batez besteko egonaldia bidaiariek gaua igarotzen duten establezimenduetan batez beste ematen duten egun-kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEko egonaldi osoaren iraupenari.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Urtarrila 2024

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2024/01	p.p. *	2024/01	p.p. *	2024/01	m/m-12 (%)	2024/01	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	38,5	1,3	48,1	2,4	75,74	3,9	36,45	9,3
Araba/Álava	41,1	1,0	52,3	-0,7	61,45	-3,4	32,16	-4,6
Vitoria-Gasteiz	43,7	2,4	56,7	0,8	58,54	-3,7	33,21	-2,4
Bizkaia	35,5	-0,3	45,8	1,2	80,41	10,5	36,83	13,4
Bilbao	40,4	1,2	51,2	3,8	86,84	10,7	44,46	19,7
Gipuzkoa	41,1	3,2	49,3	4,8	76,39	-1,0	37,65	9,7
Donostia / San Sebastián	43,4	2,3	49,7	4,0	84,51	-2,8	42,04	5,8

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2024ko Otsailaren 21a

Iturria: Eustat, Establezimendu Turistikoko Hartzaileren Inkesta

Euskal Autonomia Erkidegoan, oro har, betetze-maila %38,5ekoa izan da 2024ko urtarrilean, plazen arabera neurtuta, eta %48,1ekoa logelen arabera neurtuta. 2023ko urtarrilaren aldean, igoera ehuneko 1,3 eta 2,4 puntukoa izan da, hurrenez hurren.

Eguneko batez besteko tarifa 75,74 eurokoa izan da 2024ko urtarrilean Euskal AEn, ostatu-erregimeneko edo ADR erregimeneko gela bikoitz bati aplikatuta, hau da, %3,9 igo da aurreko urteko urtarrilaren aldean. ADRa Bizkaian kokatu da 80,41 eurotan, Gipuzkoan 76,39 eurotan eta Araban 61,45 eurotan. Kapitalen arabera, ADRrako lortutako balioak hauek izan dira: 86,84 euro Bilbon, 84,51 euro Donostian eta 58,54 euro Gasteizen.

Euskal AEko hotel-establezimenduen RevPar edo gela eskuragarriko batez besteko diru-sarrerak 36,45 euro izan dira 2024ko urtarrilean, aurreko urteko hil berean baino %9,3 gehiago.

INFORMAZIO-OHARRA

2024ko urtarrileko hotelen ETHaren erantzun-tasa **%94,9koa** izan da. Eustatek eskerrak eman dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Euskal AEko turismoko datu-esploratzailea. Hotel-establezimenduak

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62